



II. eranskina: Memoria

- **Proiektuaren deskribapena**
 - .1. Proiektuaren ezarpen egoera gaur egun (bilketa ezarrita egotekotan: gaur egun biltzen diren tonak, arreta jasotzen duen biztanle kopurua, bilketa zein auzo edo zonatan egiten den, etxebizitza kopurua eta hirigintzako tipologia eta abar).
 - .2. Diruz lagunduko den proiektuaren deskribapen laburra.
- **Eskatutako proiektua gauzatuz lortu nahi diren helburuak**
 - .1. Helburu kualitatiboak. Hona hemen batzuk, adibide gisa:
 - Herritarrak asebetetzea
 - Emandako zerbitzuaren kalitatea hobetzea
 - Erakunde eskatzailearen irudia hobetzea
 - Zerbitzua emateari lotutako helburu sozialak (enplegu soziala sortzea, ...)
 - Ingurumen alorreko hobekuntzak
 - Hirigintzako tipologia
 - .2. Helburu kuantitatiboak. Gutxienez, honako hauek:
 - Bildu beharreko hondakin organikoen tona kopurua, sortzen diren hondakin guztien aldean
 - Zerbitzua eman behar zaion biztanle kopurua
 - Zerbitzua eman behar zaion etxebizitza kopurua
 - Arreta ematen zaion biztanleriaren eta proposatutako inbertsioaren ratioa
- **Eskatutako jarduketaren deskribapena**
 - .1. Baliabide materialak:
 - .1.1. Konpost ontziak¹
 - Ezaugarri teknikoaren deskribapena eta egokitasunaren justifikazioa.
 - Kopurua
 - Tipologia
 - Sareak edo antzekoak, karraskariak sartzea galarazteko
 - .1.2. Birrintzaileak, egituratzailea fabrikatzeko²
 - Ezaugarri teknikoaren deskribapena eta egokitasunaren justifikazioa.
 - Kopurua
 - Tipologia
 - .1.3. Edukiontzia jartzea³
 - Ezaugarri teknikoaren deskribapena eta egokitasunaren justifikazioa.
 - Udalerrian edo kuadrillan hondakin organikoak biltzeko dagoen edukiontzi kopurua (daudenak eta eskatu direnak batuta).
 - Udalerrian edo kuadrillan gainerako hondakinen zatia biltzeko dagoen edukiontzi kopurua.

¹ Enpresa hornitzailearen informazio teknikoa edukiz gero, eranskinean gehitu

² Enpresa hornitzailearen informazio teknikoa edukiz gero, eranskinean gehitu

³ Enpresa hornitzailearen informazio teknikoa edukiz gero, eranskinean gehitu



- Hondakin organikoen zatia biltzeko edukiontziak (daudenak gehi eskatutakoak) / gainerako hondakinen zatia ratioa
 - Udalerrian zati organikoko edukiontzietan eskuragarri dagoen bolumen osoa (daudenak gehi eskatutakoak) / gainerako zatiko edukiontziak ratioa
 - Edukiontzien edo bilketa puntuen kokapena mapan (eskatutakoak edota daudenak), eta mapa hori gainerako zatiko edukiontzien maparekin gainjartzea
- .1.4. Poltsa konpostagarriak, etxeko ontziak herritarrentzat, ontzi handiagoak merkataritza eta ostalaritzako establezimendu eta hiriko hondakinekin pareka daitezkeen hondakin organikoak sortzen dituztenentzat eta irekitzeko giltza edo txartel pertsonalizatuak ontziak erabili ahal izateko⁴. Laguntzak eskatzen diren itemetako bakoitzeko (poltsak, kuboak, giltzak, irekitze-txartelak eta abar) unitate kopurua adieraztea, baita ezaugarri teknikoen deskribapena eta beraien egokitasunaren justifikazioa ere.
- .1.5. Ontziak erabiltzeko kontrolari (sarraila elektronikoa) lotutako hardware eta software sistemak, herritarrek eta beste hondakin sortzaile batzuek ontzietan sartzen dituzten hondakin organikoek buruzko informazioa bildu eta tratatzeko beharrezkoak direnak⁵. Adierazi ezaugarri teknikoen deskribapena eta haren egokitasunaren justifikazioa.
- .1.6. Komunitate konpostajeko instalazioak⁶:
- Konpostajeko instalazioa lekutu nahi den lursaila egokitzeko lanen deskribapena.
 - Gaika bildutako hondakin organikoak konpostajeko instalazioaren obra zibilaren deskribapena.
 - Konpostajea egiteko behar-beharrezkoak diren makinaren zerrenda eta deskribapena.
 - Konpost ontziak eta hondakinak instalazioak biltzeko ontzien zerrenda eta deskribapena.
- .1.7. Konpostajeari lotutako inausketa eta lorezaintza hondarrak biltzeko eremuak egokitzea⁷
- Biltegirako zona jarri nahi den lursaila egokitzeko lanen deskribapena.
 - Zona horretan egin nahi den obra zibilaren deskribapena.
- .1.8. Diru laguntzaren xedeari lotutako beste edozein bitarteko material eta deskribapena.

⁴ Enpresa hornitzailearen informazio teknikoa edukiz gero, eranskinean gehitu

⁵ Enpresa hornitzailearen informazio teknikoa edukiz gero, eranskinean gehitu.

⁶ Enpresa hornitzaileek egin behar dituzten lanen informazio teknikoa edota deskribapen memoria edukiz gero, eranskin batean eman

⁷ Enpresa hornitzaileek egin behar dituzten lanen informazio teknikoa edota deskribapen memoria edukiz gero, eranskin batean eman



.2. Sentsibilizazio kanpainak⁸

- Egin beharreko jarduketan deskribapena, abian jarri beharreko ekintzetako bakoitzaren tipologia eta bitartekoak bereiziz. Zehazki, hauei dagozkienak: Publizitate materialen diseinua eta argitalpena, proiektuaren berri emateko bitartekoak, eta proiektuaren arduraduna den toki erakundeko teknikariak eta parte hartzen duten pertsonak elkarrekin komunikatzeko mekanismoak, hizkuntza modu ez sexistan erabiliz, irudi sexistak sartu gabe eta genero estereotipoak erreproduzitu gabe.

.3. Kanpoko laguntza tekniko⁹

- Azpikontratatu beharreko enpresak egingo dituen aholkularitza lanak deskribatuko dira, argi eta garbi adieraziz kontratazio horren helburua eta espero diren emaitzak.

• **Proiektuaren garapenean zerikusia duten eragileak**

- .1. Kuadrillen kasuan, zehaztu zerikusia duten udalerrriak.
- .2. Azpikontratatu behar diren kanpoko erakunde hornitzaileen deskribapena, haietako bakoitzak egin behar duen papera zehaztuz.

• **Ezartzeko kronograma**

- .1. Jarduera bakoitza hasteko eta bukatzeko data emango da, baita hura gauzatzean parte hartuko duten eragileak ere (bai barrukoak bai kanpoko erakunde hornitzaileak), ezarri beharreko ekintza guztiak zehaztuz.
- .2. 2021eko eta/edo 2022ko ekitaldi bakoitzean gauzatu beharreko kontzeptuen banakapena jaso.

⁸ Zerbitzua emateko eskaintza izanez gero, eranskinean sartu

⁹ Zerbitzua emateko eskaintza izanez gero, eranskinean sartu